

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**568/2018 Foru Agindua, azaroaren 27koa, onesten duena Karrerako funtzionarioak izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu publikoaren eskaintzan karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, nekazaritzako agronomia, A1 taldea**

Azaroaren 18ko 337/2016 Foru Arauaren bitartez onartu ziren Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren 2016ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

Ekainaren 8ko 344/2018 Foru Aginduz, praktiketako funtzionarioak izendatu ziren lanpostu honetarako: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, NEKAZARITZAKO AGRONOMOA, A1 taldea. Hautatutako izangaia ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

#### SISTEMA IREKIAREN TXANDA

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Luis Javier Román de Lara	Nekazaritza Teknikaria	1286.001

#### BARNE SUSTAPENAREN TXANDA

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Alfredo Saez de Castillo Beltrán de Otálora	Zuzeneko laguntzak diseinatu eta kudeatzeko teknikaria	1139.001
Antonio Remesal Villar	Mahastizaintzako Goi-Mailako Teknikaria.	1127.001

Oinarri arauen 12. atalaren arabera, balioespen batzordeak guztien praktikaldia "Gai" kalifikazioarekin balioetsi du. Ondorioz, praktikaldia gairatu dutenez eta oinarri arau horien 14. atalari jarraituz, karrerako funtzionario izendatu eta izendapen hori ALHAOn argitaratu behar da.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionarioak izendatzea administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, nekazaritzako agronomia, A1 taldea. Praktikaldia gairatuak ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

#### SISTEMA IREKIAREN TXANDA

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Luis Javier Román de Lara	Nekazaritza Teknikaria	1286.001

#### BARNE SUSTAPENAREN TXANDA

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Alfredo Saez de Castillo Beltrán de Otálora	Zuzeneko laguntzak diseinatu eta kudeatzeko teknikaria	1139.001
Antonio Remesal Villar	Mahastizaintzako Goi-Mailako Teknikaria.	1127.001

Bigarrena. Izendatutako izangaiek hilabeteko epea dute lanpostuaz jabetzeko, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaiek hala eskatzen badute, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez bada, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko dituzte.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak esleitutako lanpostuetara atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, aukerako berraztertze errekurtsua ebazpena eman duen organoaren aurka, hilabeteko epean, Foru Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitute Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikulua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 27a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**